**Proiektuetarako jarduerak | 3. Blokea: Interakzioa. LANBIDE-HEZIKETA**

**LH Erdi Maila eta Goi Maila. 16 - 20+ urte**

# Berrikuntza-Azoka

# eTwinning LH

| | |
|---|---|
| **Lanbide-Heziketa**<br>16 - 20+ urte | |
| **Maila**<br>Oinarrizkoa | |
| **Denboralizazioa**<br>3-4 saio | |
| **Kideak**<br>3-4 kide | |

## JARDUERAREN DESKRIPZIOA

Espezialitate ezberdinetako LH-ko ikasleak eta irakasleak bateratzea eta berrikuntza profesionaleko lantegietan elkarrekin parte hartzea.

**JARDUERAREN XEDEAK**

1. Beste ikastetxe batzuetan egiten den jardun profesionala ezagutzea.

2. Parte hartzen duten ikasleen artean berrikuntza eta sormena sustatzea.
3. Proiektu ekintzaile berriak sor daitezen bultzatzea.

**JARDUERAREN GARAPENA**

# 1. Fasea: Prestatzea

**1. Urratsa:** Dozenteek ikasleak TwinSpace-n erregistratuko dituzte, sartzeko gakoak emango dizkiete eta URL helbidea adieraziko diete: http://twinspace.etwinning.net

**Tutoriala**: Nola erregistratu ikasleak TwinSpace-n




**2. Urratsa: Aurkezpenak**

Horma birtual bat sortuko da Padlet tresna https://es.padlet.com edo antzeko bat erabiliz. Hormaren izena "**Geure burua aurkezten dugu**" izango da.
*Dozenteek Padlet tresna konfiguratuko dute iruzkinak idatzi ahal izateko.*

**Tutoriala:** Padlet

**3. Urratsa:** Irakasleek jarduera-orri bat irekiko dute TwinSpace-n "**Geure burua aurkezten dugu**" izenarekin. Orri hori aurretik sortutako horma birtualean txertatuko da.




**Tutoriala**: Nola sortu jarduera-orri bat TwinSpace-n

## 2. Fasea. Praktikan jartzea

**4. Urratsa:** Ikasle bakoitzak bere aurkezpen pertsonala prestatuko du. Bere izena (gezurretazkoa izan daiteke), adina, lurraldea, zein heziketa-ziklo egiten ari den eta Europar Batasuneko monumentu bat hobetzeko proposamen bat aipatu beharko ditu (adibidez, Eiffel dorrea koloretan margotzea). Aurkezpena Padlet-aren horma digitalean jarriko du. Posta argitaratu eta gero, ikasle bakoitzak ikaskide baten aurkezpena aukeratu eta egin duen hobekuntza proposamena komentatuko du.

**5. Urratsa. Lantegian egindako lana partekatuko dugu**. Bideo-grabaketa motz bat egitean datza (2-3 minutu), lantegian jarduera praktiko bat agertuko duena. Kide den ikastetxe bakoitzak bere filmaketak prestatuko ditu (gerta liteke ikastetxe batzuetan espezialitate ezberdinetako hainbat taldek parte hartzea) eta espezialitate berdina duten beste ikastetxeen grabaziora gehituko dira. Irakasleek bideoak eta taldeak nola antolatu adostuko dute. Nazioarteko taldeak koordinatzeko eTwinning Live-n chatroom-a erabiliko da.




**Tutoriala**: TwinSpace-ko txataren erabilera eta ezaugarriak

**6. Urratsa.** TwinSpace-n “**Lantegian praktikak egiteko taldeak antolatzea**” izeneko jarduera-orri bat sortuko da. Bertan, nazioarteko lantaldeak (heziketa-zikloaren arabera) eta era kolaboratiboan aurkeztuko diren lantegiak (bideoak) argitaratuko dira.



ORGANIZACIÓN DE EQUIPOS PARA LAS PRÁCTICAS DE TALLER

Edit page

Una vez presentados/as, vamos a compartir nuestras clases prácticas. Cada clase va a filmar una pequeña demostración de taller(2-3 minutos). Se puede grabar con el móvil o con la cámara.

En esta tabla se puede ver la organización de los equipos, países y talleres prácticos.

| PAISES | ESPECIALIDAD DE FP | TALLER PRÁCTICO |
|---|---|---|
| Alemania y España | CFGM en Farmacia y Parafarmacia | interpretación de información de envases de medicamentos y cupones |
| Bélgica e Italia | CFGM en Carpintería y mueble | Operaciones básicas de mobiliario |
| Italia y Alemania | CFGS Educación y Control ambiental | Proyecto de educación ambiental en el río de tu localidad |
| Bélgica y España | CFGS Integración Social | Talleres intergeneracionales |

**7. Urratsa.** TwinSpace-n “**Ongietorriak eTwinning LH Berrikuntza-Azokara**” izeneko orri bat sortuko da. Klase bakoitzak lantegi praktikoei buruzko bideo bat grabatuko du (gehienez 2 minutukoa). Bideo hori beste lurraldeko ikaskideenera batuko da (gomendatzen da azkeneko produktuak 5 minutu baino gehiago ez irautea). Bi bideoak https://www.aconvert.com/video/merge/ tresna edo antzeko bat erabiliz batuko dira. Ikasleek sortutako 4 bideoak ikusiko dituzte eta gehien gustatu zaiena zer den eta agerpen praktikotik zer hobetuko luketen komentatuko dute.




**Tutoriala**: https://www.aconvert.com/video/merge/
https://cincodias.elpais.com/cincodias/2018/02/19/lifestyle/1519053157_871651.html

**8. Urratsa**. TwinSpace-n “**Berrikuntza LH-n**” izeneko orri berri bat sortuko da. “LH-n berrikuntza-proiektu bat egiteko aholkuak” bideoa https://www.youtube.com/watch?time_continue=87&v=8BIx3iiu_So kontura edo TwinSpace-ko MATERIALAK-BIDEOAK atalera igoko da dozente kide guztiek bertara sartu eta ikasleei erakusteko aukera izan dezaten.



**Tutoriala**: **TwinSpace-ko bideoak kudeatzea.**

**9. Urratsa**. Bideoa ikusi eta gero Lanbide-Heziketako berrikuntzari buruzko iruzkin-foro bat antolatuko da. Dozenteek foroan eztabaida-hariak sortuko dituzte.




**10. Urratsa**. Dozenteek hitz egiteko txandak eta bideokonferentziako gaiak antolatuko dituzte Twinmail bidez (TwinSpace-ko posta elektronikoa). Ikastetxe kide bakoitzeko dozente batek eta ikasle batek haien ideia berritzailea aurkeztuko diete gainerako irakasle eta ikasleei. Aurkezpena motza izango da, ez ditu 5 minutu baino gehiago iraungo.




**11. Urratsa**. “**Berrikuntza LH-n**” orrian “**Azokako flyerra**” azpi-orria sortuko da. Orri horretan topaketa-eguna iragarriko duen argazki edo poster bat atxikiko da.

FLYER DE LA FERIA

Edit page

Éste es el flyer de la feria!! Recordad, que tenemos una cita el próximo dia 20 de noviembre!!




**12. Urratsa**. “**Azokako lan-programa**” izeneko azpi-orri berria sortuko da “**Berrikuntza LH-n**” orriaren azpian. Orri horretan emango diren hitzaldiak eta hizlarien hurrenkera argitaratuko dira.

PROGRAMA DE TRABAJO DE LA FERIA

Edit page

Éstos son los turnos establecidos para la presentación de ideas de innovación y los temas que trataremos durante la videoconferencia.

| PRESENTACIÓN DE LA FERIA INNOVA Etwinning FP | 12h | Breve definición innovación FP |
|---|---|---|
| **ALEMANIA** | 12.05h | Formas de hacer difusión de las propiedades preventivas de frutas y verduras |
| **ESPAÑA** | 12.10h | Servicio de ayuda a mayores en las gestiones de internet |
| **BÉLGICA** | 12.15h | Creación de nuevos muebles con material reciclado |
| **ITALIA** | 12.20h | Programa de educación ambiental en las empresas |
| **CONCLUSIONES y PREGUNTAS** | 12.25h | Conclusiones finales y turno abierto de preguntas |

**13. Urratsa.** Proiektuaren TwinSpace-an online ekitaldi bat sortuko da eta bideokonferentzia bat egingo da adostutako orduan eta egunean. “**Azokako**

**irudiak**” jarduera-orri berria sortuko da. Espazio horretan topaketako argazkiak argitaratuko dira.




## 3. Fasea. Datuak jasotzea, jakitera ematea eta ebaluatzea

**14. Urratsa.** TwinSpace-n “**Azokako parte-hartzearen autoebaluazioa**” orri berria sortuko da. Autoebaluazio-galdetegi bat sortuko da. Ikasle bakoitzak bere autoebaluazioa egingo du. https://goo.gl/forms/STxrjPizkvAllte32


AUTOEVALUACIÓN DE LA PARTICIPACIÓN EN LA FERIA

Edit page

Debéis responder a este cuestionario de autoevaluación de vuestra participación en la feria. Es muy importante que seáis sinceros/as sobre vuestras aportaciones a este proyecto.

!Muchas gracias!

CUESTIONARIO FERIA INNOVA ETWINNING FP

Nombre i apellidos:

1. He realizado la presentación personal de inicio del proyecto

SI

NO

2. Me he implicado en la confección del video taller y he colaborado para compartir la experiencia

SI

NO

**Tutoriala**: **Nola sortu galdetegi bat Google Drive erabiliz**

**AURREIKUSITAKO PRODUKTUA(K)/EMAITZA(K)**

- Ikasleen aurkezpen pertsonalak eta haien arteko hartu-emana agertzen duten horma-irudiak.
- Bideoen horma kolaboratiboa, lantegi praktikoak partekatzekoa.
- Bideokonferentzien argazkiak eta grabazioak.

**TWINSPACE-KO TRESNAK/KANPOKO 2.0 TRESNAK**

-TwinSpace: ikasleen foroa, materialak-bideoak-argazkiak, chatroom-a, bideokonferentzia

-Taula edo horma digitalak: padlet https://es.padlet.com
-Galdetegia-Ikasleen autoebaluazioa Google docs tresnarekin https://docs.google.com/forms